

ESTADISTIKA ENPRESARA APLIKATUA

JOSEMARI SARASOLA

BEREZIA COVID-19, 2020KO MARTXOA

LIMITEAREN TEOREMA ZENTRALA (ARIKETAK)

Hegaldi batean fakturatzeko diren ekipaje bakoitza nola banatzen den ez da ezaguna (ez dakigu normal banatzen den ere, beraz), baina batezbeste 20 kilo pisatzen duela uste da, 3 kiloko desbideratzearekin.

1. 100 ekipaje fakturatu badira, kalkulatu guztira 2100 kilo baino gehiago kargatu behar izateko probabilitatea.
2. Zenbateko karga ziurra daiteke gutxienez %96ko probabilitateaz?
3. Kalkulatu zenbat ekipaje fakturatu daitezkeen 2000 kilo gainditzeko probabilitatea 0.01 izan dadin? (n motako problema)
4. 5 ekipajek 100 kilo gainditzeko probabilitatea eman, ahal bada. Zergatik ezin da LTZ aplikatu? Zer aplikatu dezakezu? Eta ekipajearen pisua normal banatuko balitz?
5. Orain, ekipajeen batezbesteko aritmetikoari buruz arituko gara (ikus, ariketa liburuan LTZ azken ariketa). Zenbat da 50 ekipajeen batezbesteko aritmetikoa 21 kilo baino handiagoa izateko probabilitatea?
6. 50 ekipajeen batezbestekoa 21 kilo balitz benetan, ekipaje bakoitzaren batez besteko pisu teorikoa handitu dela esango zenuke? Alfa: 0.05